



🏠 Hasiera / BERTSOTAN / Bi adiskide mugaz gaindi: Uztapide eta Xalbador

BERTSOTAN

Bi adiskide mugaz gaindi: Uztapide eta Xalbador

🕒 2024-06-06



Manuel Olaizola (Uztapide) eta Fernando Aire (Xalbador) bertsolarien arteko adiskidetasunaz idatzi du Pako Aristik. Euskal Herriak eman dituen bertsolaririk handienetakoak, euskal kulturaren erraldoi bilakatu dira.

Bata Zestoan jaio zen, eta bestea, Urepelen, baina distantzia horrek ez zuen bion arteko laguntasuna kamustu, eta bertsolari handiak izateaz aparte, lagun handiak ere izan ziren, beti ere bertsoreen munduan barneraturik. Elkarri idatzi eta bidaltzen zizkioten gutunetan bertsok, estimu handiz. "Bien tartean muga bat egon arren, eta bi euskalkitan kantatu arren, elkar osatu zuten hogeita hamar urtez iraun zuen adiskidantza baten bitartez. Haien ereduari jarraituz, orain bi herriak, Zestoa eta Urepele, senidetu egin dira".

Pako Aristik bibliografia oparo bat aztertu ondoren liburu liluragarri bat ondu du nobela bat bezala irakurtzen dena. Idazlearen dohainez testigantza ederrak jasotzen dira, eta narrazioan txertaturik doazen bertsoen bitartez giro ederra hartzen du lan zirraragarriak. "Bertsoszaleentzat ezinbestekoa, baina bertsoszale ez direnentzat ere guztiz interesgarria izango den liburua."

Erein argitaletxeak plazaraturiko lanaren hasierako terrotan honako hau irakurri ahal dugu: "Uztapide eta Xalbador, Euskal Herri osoan ezagunak eta miretsiak, 30 urtez aritu ziren elkarrekin herriz herri bertsotan, eta gure kulturaren historiako gertakizun garrantzitsu batzuetako protagonistak izan ziren. Haiek sinbolizatu zuten, gainera, bi estatutan zatitua dagoen Euskal Herriaren samina, Ipar eta Hego elkarrengandik urruntzen dituen muga politiko bat dela medio. Muga hori gainditu zuen haien adiskidantzak, hizkuntzaren eragozpenetik hasita, eta askotan kantatu zuten bi lurraldeak batu beharraz, herri bakar bat osatzeraino. Urepeldarrak laburtu zuen bezala: «Herria da gorputza,/ hizkuntza bihotza".

↩ Partekatu



Antzeko artikulua



Gipuzkoa Bertsotanen azken asteburua

🕒 2024-06-03



Argi Baltza, bertsolari gazteentzako lehiaketa

🕒 2024-05-30



"Anonyme popular" ikuskizunaren azken agurrak

🕒 2024-05-30

Utzi erantzuna

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena


E-posta

Webgunea


☐ Gorde nire izena, emaila eta webgunea bilatzaile honetan komentatzen dudana hurrengorako.

Bidali iruzkina

Gure Facebook



Gure Twitter



Azken Albisteak

- 1

"Trantsizioak" programa, artista eta kolektibo eszenikoei laguntzeko
🕒 2024-06-06
- 2

Dantza garaikidea Pasaiko Dantza Festibalean
🕒 2024-06-05
- 3

"Angelu Zorrotza" erakusketa, Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa-aretoan
🕒 2024-06-05

Kontaktua

Nontzeberri | Suspergintza Elkartea
Simon Bolibar, 8ºB - 48010 Bilbao

Tel: 944 029 092
Faxa: 944 008 061

nontzeberri@nontzeberri.eus



Azken albisteak

- 2024-06-06

Bi adiskide mugaz gaindi: Uztapide eta Xalbador
- 2024-06-06

"Trantsizioak" programa, artista eta kolektibo eszenikoei laguntzeko
- 2024-06-05

Dantza garaikidea Pasaiko Dantza Festibalean
- 2024-06-05

"Angelu Zorrotza" erakusketa, Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa-aretoan

Nabarmendutako albisteak

